

ÑIGO URKULLUREN HITZALDIA BERRIKUNTZA BURUZKO MINTEGIAN

09/10/2008 EUSKALDUNA JAUREGIA

Eskerrik asko ekitaldi honetara etorri zaretenoi, bereziki, berrikuntzaren inguruko jardunaldiko hizlariei.

Berrikuntza Euskadiren etorkizunaren zutabe gisa aztertuko dugu. Alderdi eta herri gisa ezarri dugun helburuetako bat ere bada.

Oro hor, Euskadi ekonomia txikia dela baina errenta oso handia daukala esan dezakegu, eremu fisiko txiki batean kokatuta dago, okupazio maila oso handia dauka dagoeneko, natur bitartekorik eta energia iturri propiorik ez dauka, soldata gastu oso handiak dauzka eta ekoizpen ona.

Eskerrik asko berrikuntzari buruzko jardunaldiarekin lotutako prentsaurreko honetara etortzeagatik. Berrikuntza Euskadiren etorkizuneko zutabeetako bat da, baita Think Gaur Euskadi 2020 ekimeneko alor funtsezkoenetakoa ere. Gainera, ez da kezka berria guretzat. Hemen, Euskadin, aspalditik ari gara garrantzia ematen berrikuntzari. Hala, Eusko Jaurlaritzak 2008. urtea berrikuntzaren urte izendatu zuen eta, Innobasque proiektuaren bidez, euskal gizarteko sektore guztiek zeregin horretan esku har zezaten saiatu gara. Gainera, gure ustez, berrikuntza bera ez da helburu bat, gure proposamen ekonomiko osoan aplikatu beharreko inbertsio bat baizik.

Hori guztia egin nahi dugu, alderdi sozialista, hemengoa zein Madrilgoa, arlo honetako transferentziaren kasuan egiten ari den jokoa (hala deitu behar baitiogu) kontuan hartu gabe. Badakit euskal sozialistak biziki urduritzen dituela hauteskunderen aurretik Estatutuaren garapenari buruz hitz egiteak; Gobernuko presidente Rodríguez Zapateroren urraketa etengabe babesten ari direlako, batez ere.

Baina ez diogu ezeri uko egingo eta, are gutxiago, gure eskumenak garatzeari. Gernikako Estatutuaren arabera, berrikuntza arloko eskumena Euskal Administrazioari dagokio (10 – 16 artikulua). Ez diogu ezeri uko egingo, ez diogu eskumen horri uko egingo, nahiz eta ministro “iritsi berriak” sarritan esan eta euskal sozialistak pozez beteta egon.

Horregatik guztiagatik, are larriagoa iruditzen zaigu Rodríguez Zapateroren gobernuaren jarrera. Izan ere, badirudi euskal gizarteari krisi ekonomikoa gainditzen lagun diezaioketen tresnak ukatzeko prest dagoela. Badirudi esaera zahar hau defendatzen duela: “askoren mina...”.

Hori guztia Rodríguez Zapateroren aldetik dator, hau da, udan krisian egotearena interpretazio kontua zela esan zuenaren eskutik. Gobernu berak esan zuen, Ekonomia ministroaren ahotik, munduko banku sistema sendoena geneukala eta, aldiz, atzo bertan, gordailuetako gutxieneko bermea handituko zuela iragarri zuen. Euzko Alderdi Jeltzaleak bere buruari galdetzen dio Espainiak finantza sistema sendoena baldin badauka zergatik ez duen aurrezkien % 100 bermatzen, gure inguruko herrialde askok egin duten bezala, adibidez: Alemaniak, Portugalek, Irlandak eta Norvegiak. Politika alderrai eta nahasi horrek, nire ustez, mesede eskasa egiten dio politika ekonomikoaren sinesgarritasunari eta sinesgarritasuna ezinbestekoa da krisi egoerari aurre egiteko. Guk euskal finantza sistema bat kudeatzeko aukera izango bagenu, euskal aurrezleei % 100eko bermea emango geniola esaten ariko ginatke orain.

Badirudi ez zaiela axola krisia gainditzeko haiek baino askoz hobeto prestatuta gaudenok –Euskadi, adibidez–, eskumenak eta tresna politikoak falta zaizkigulako, zailtasunak edukitzea.

Baina euskal gizarteari esan behar diogu, halaber, ikerketan inbertituko dugula –dagoeneko ari gara egiten–, eskumen hori eduki ez arren. Ez gara ezer egin gabe geratuko, ezer transferitu nahi ez duenak (ezta hitzartutakoa ere) zerbait transferitzeko zain. Gaur egungo ikerketa biharko etorkizun ekonomikoa da eta guk inbertitu egingo dugu etorkizun horretan.

Horregatik, alderdi sozialistaren jarrera kontuan hartu gabe, ikerketa proiektuak sustatzen eta babesten jarraituko dugu. Donostiako Physics Centerren, ibilgailuen sektorean, biologian, telekomunikazioetan, espalazio gunean, EHUren azpiegitura berrietan...

Eta ideiak argi izanda, Think Gaur ekimenak erakusten digu LANKIDETZA dela hitz gakoa.

Eskandinaviako herrialdeetan, alor publikoaren eta pribatuaren baterako kudeaketa da berrikuntzaren gakoa. Eredu hori garatuko dugu Euskadin, erakundeen eta enpresen arteko adostasun ahalik eta handienetik abiatuta.

Ekonomia beti izan da gure lehentasuna, baina, gaur egun, are gehiago. Berrikuntzan inbertitzea gizarteari proposatuko diogun politika ekonomikoaren parte da. Eta, ildo horretan, sektorekako alor guztietan aplikatuko dugu: trebakuntzaren, osasunaren, komunikazioaren eta ingurumenaren, industri politikaren eta teknologia berrien kudeaketan, besteak beste.